

EUDELen BATZAR NAGUSIA

2013ko maiatzaren 24a, ostirala, Iruña Oka, Araba

ELKARTEBURUAREN HITZALDIA

Ibone Bengoetxea

Aurtengo batzarra berezia da, euskal udalgintzaren jarraipen eta garapenerako funtsezkoa den unean egingo delako. Euskadiko udalok fronte asko ditugu zabalik, eta horien artean Tokiko Administrazioaren Erreforma da garrantzitsuena. Izan ere, Tokiko Administrazio Batzorde Nazionalaren (CNAL) onespena lortu du joan den asteartean, izapideak berehala egin daitezten. Gogoan izan duela urtebete, 2012an Elgoibarren egin genuen Batzarrean, zoritxarrez gaur egun gainean daukagun tokiko mailaren erreforma aurreratu genuela.

Eudelen Batzorde Eragilea 10 hilabetez aritu izan da testu desberdinak lantzen. Izan ere, eredu-aldaketa sakonaren mehatxupean gaude, eta badirudi atzera eramango gaituela tokiko autonomiaren, eskumenen, finantzen eta autogobernuaren arloan. **Bai, Euskadiko udalok ere badugu** tokiko gobernu-eredua galtzeko **arriskurik**, nahiz eta zerbitzuak eta herritarren arreta kalitatekoak diren, eta, gaur egun, gainerakoek ez bezalako eredua dugun.

Lehen esan dudanez, funtsezko urtea izango da. Hemendik 2015. urtera, oso epealdi zaila izango da gure udalen kudeaketa politikoari begira. Hori dela eta, tokiko gobernuetako ordezkariak zaretenoi hitz egiteko abagunea ematen didan batzar hau aukera ezin hobea da gure hurrengo erronken **diagnostikoa** egiteko eta gure indarrak eta aukerak zein diren aztertzeko.

Etorkizun hurbilari dagokionez, Euskadiko udalok non gauden eta norantz goazen hausnartu nahi nuke ondoren.

(Krisi ekonomiko eta finantzarioa)

Koiuntura ekonomikoa ez da ona. Dena dela, orokorrean, udalak arduratsuak ari gara izaten.

Euskadiko udalok ez gaude geldi. Geure kudeaketa-ereduan inplikatzeko eta “ahalegintzen” ari gara, kontzientziaz eta erantzukizunez.

Gure udalen egoera zaila bada ere, Euskadiren egoera ez da batzuek pentsarazi nahi diguten bezain txarra. Zaila, bai. Dena dela, gaur egun, gure udalak Estatukoak baino hobeto daudela nabarmendu beharra dago.

Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak tokiko erakundeek 2012ko abendura arte zeukaten zor biziari buruz egin duen azken txostena kontuan hartzen badugu, egiaztatzen da Euskadiko udalen zorra Estatu osoko udalena baino nabarmen txikiagoa dela. Euskadiko udalak biztanleriaren %4,6 gara, eta Estatuko udalen zor guztiaren %1,9 baino ez dugu ordezkatzeko. Era berean, zorraren zenbatekoa biztanleko neurtzen badugu, diferentzia biztanleko 400 euro gutxiagokoa da, Estatuko batezbestekoaren aldean.

Euskadiko errealitatea desberdina da, eta datuak berretsi egiten dute hori. Hornitzaileei egiten zaizkien ordainketen batez besteko epea 34 egunekoa da Euskadin, eta 157 egunekoa, Estatuan.

Euskadiko udalok egoera txarrean gaude, gainerako maila instituzionalak bezala, sektore ekonomikoak bezala, gizartea bera bezala. Ez daukagu irtenbiderik? Geldi egotera kondenatuta gaude? Inoiz baino gutxiago.

Hori dela eta, irtenbideak bilatu behar ditugu ekimenez, erakundeen arteko lankidetzaz eta elkarrizketarako borondateaz. Oinak lurrean, beti egin izan dugun bezala.

(Euskadiko udalen ereduaren krisia)

Testuinguru honetan, tokiko erakundeei zuzenean eragiten dien mehatxu baten aurrean gaude. Beste krisi bat da, beste aldaketa bat; oraingoan, gure tokiko gobernu ereduaren krisiaz ari gara, “Euskadiko udalen” kontzeptuaz, alegia.

“Paradigma aldaketari” buruz ari gara. Udal moduan “egiten dakiguna” arauzko aldaketa handien eraginpean dago, eta, laster, are neurri handiagoan egongo da egoera horretan.

Aurten, erreformen “puzzle” konplexua osatuko da, eta horrek erabateko eragina izango du tokiko erakundeen eskumenen, ekonomiaren eta finantzen arloetan. Oinarritzko arauen bidez egituratutako fronte horretan, **Tokiko Administrazioaren Arrazionalizaziorako eta Iraunkortasunerako Aurreproiektua** da nagusi. Hasieran esan dudan bezala, CNALe testua balioztatu berri du, eta behin betiko bultzada izan da Gorte Nagusiek onartu dezaten. Aurreikuspenen arabera, urtea amaitu baino lehen egingo du.

EUDEL bera lehenengoetakoa izan zen erreforma horrek gure toki-autonomian eta gure ereduaren “bereizgarritasunean” nolako arriskuak zituen azpimarratzeko orduan. Urtebete igaro da 2012ko batzarra egin genuenetik. Bertan, hain zuzen ere, tokiko mailaren balizko erreformaren berri eman genizuen, uztaillean aurkeztua izan baino lehen. Hasiera batean, zurrumurrak izan ziren; eta, ondoren, baieztatu egin den aurreikuspena. Epealdi horretan, informazioa eman dizuegu hautetsientzat antolatutako zenbait bileratan, baita idazkari, kontu-hartzaile eta udaletako gainerako talde juridiko nahiz teknikoentzat egindako saioetan ere.

Otsailaren 15ean izan genuen Aurreproiektuaren lehenengo zirriborro ofizialaren berri. EUDELe bere jarrera instituzional, tekniko eta juridikoa zein zen azaldu zuen. Jarrera hori udal nahiz mankomunitateei bidali zitzaien, bai eta Eusko Jaurlaritzari, FEMPi eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari berari ere.

EUDELe Euskadiren “bereizgarritasuna” defendatzen du, aldundien tutoretza ekonomiko eta finantzarioari buruzko araubide bereziaren ondorioz (gure “foru-bereizgarritasunaren” klausulaz ari naiz). Horiek dira gure autogobernuaren funtsezko zutabeak, eta, beraz, kanpoko esku-sartzeetatik babestu behar dira, euskal esparruan edonolako erreforma instituzionalak ezarri nahi dituztenean.

Izan ere, argi eta garbi esan beharra dago aurreproiektu honek funtsean gure sistema instituzionalean izango duela eragina. Piramidearen oinarria da xedea, udalak eta Euskadiko tokiko gainerako erakundeak, alegia.

Gobernu Zentralak Erreforma honi eman dion “makillajeak” ezin gaitu inondik inora nahastu. Eskumenak eta zerbitzuak desegin egingo dira, honako printzipio hauen babespean: eraginkortasuna, kontrol ekonomikoa eta aurrekontuen kontrola, eta egitura administratiboaren arrazoizko erabilera; “kostu estandarra” esaten diote, eta, horri esker, zortzi mila milioi euro aurreztu nahi dituzte.

Bitxia bada ere, aldi berean, ekimen hau “oso munizipalista” ere badela adierazi du Gobernu Zentralak. Hala ere, Aurreproiektuan zehaztutako neurriak berrikusten baditugu, honakoa galdetzen diogu geure buruari: Zertan geratuko da udalen zeregina? Ezertan ere ez? Gobernu eraginkor izatetik behatzaile hutsak izatera igaroko gara?

Non dago tokiko autonomia?

Udalok herritarrek hurbilen duten erakundea garenez, oinarritzko zerbitzu gehienak ematen ditugu. Gainera, ezinbesteko zerbitzuak izateaz gain, eragin erabakigarria dute gure biztanleen bizi-kalitatean: uraren hornikuntza, saneamendua, argiak, zaborra, garbiketa, parkeak, kirol-ekipamenduak, ekipamendu kulturalak, eta abar.

EUDELetik, testuak jasotzen ez zuen foru-babeserako klausula eskatu genuen, eta horrela egin da, Kongresuan gehiengo handi baten babesa jaso ondoren. Dena dela, ez dakigu zein neurritan babestuko gaituen klausula horrek.

Foru-bereizgarritasunaren “aterkiak” erreformaren eragin sakonenetik babestuko gaitu? Euskadiko udalok saihestu ahal izango dugu erreforma honek gu hondoratzea (euriaren zipriztinek busti egingo gaituzte, jakina)?

EUDELen erantzukizuna da Aurreproiektu honetako neurri nabarienak Euskadin ezartzeko orduan oraindik dauden ziurgabetasunez ohartaraztea. Horien artean, udalen **eskumenei** buruzkoak nabarmentzen dira, aurrerantzean beste mailek kudeatuko lituzketelako: gizarte zerbitzuak eta osasuna. Dena dela, badirudi hezkuntzaren arloko eskumenari eutsiko zaiola, autonomia-mailako nahiz tokiko finantziazorako sistema berria zehaztu arte. Eta nork zehaztuko du finantziazorako sistema berri hori, Euskadiko udalena desberdina bada dagoeneko? Nola eragiten die guztiei gure sistema instituzionalak? Nola egiten du bat?

Erreforma egituratzen duen ardatz nagusia udalek derrigorrean eman beharreko gutxieneko zerbitzuen **kostu estandarra** zehaztea da. Hori guztia, aurrekontuen egonkortasunaren eta iraunkortasun finantzarioaren printzipioak tokiko esparrura eramateko asmoarekin.

Estandar horiek oinarri moduan erabiliko dira, tokiko erakunde bakoitzari esleitutako baliabide finantzarioak zehazteko orduan. Oraindik ez dakigu nolako irizpideak erabiliko diren kostu estandar hori zehazteko orduan. Non geratuko da zerbitzuen kalitatea? Zer gertatuko da euskal eredutik eratorritako baliabideen esleipenarekin? Nola errespetatuko da?

Hori dela eta, ez gaude ados gure eskumenak “kostu estandarraren” arabera ebaluatzearekin. Inork ez du ukatuko udal-finantzak onbideratuta egon behar direla, baina gurekin ezin dute “neurri bera” erabili, Euskadiko udaletan ematen dugun zerbitzuaren kalitateari dagokionez.

Hasteko, Euskadin, gure tokiko gobernuan eta udal-zerbitzuetan daukagun eredua **kalitatean eta hurbiltasunean** oinarrituta dago, eta ez bakarrik etekin ekonomikoen terminoetan. Gure ustez, eraginkortasuna eta egokitasuna ez dautza kostuan soilik, beste bi printzipio banaezinen baturan baizik: gure zerbitzuaren hurbiltasuna eta kalitatea.

Erreforma honen benetako benetako arriskua da, gure foru bereizgarritasuna kontuan hartzen badu ere, udalok desitxuratuak izateko, eskumenik gabe geratzeko eta gure herritarren aurrean jabekuntza galtzeko arriskua daukagula. Eta are larriagoa dena, zerbitzu txarragoak eskaintzeko arriskua daukagula.

Horrela, bada, ikusten duzuenetz, iazko urtea gogorra izan bazen, EUDELen batzorde teknikoek eta zerbitzu juridikoek buru-belarri lan egin beharko dute 2013. urte honetan. EUDELeke lege-proiektu eta arau berri guztiei buruz zer uste duen adierazten du beti. Hori dela eta, Tokiko Administrazioaren Erreformari buruzkoa ez ezik, zenbait arlotako azterketak ere egingo ditugu aurten: gure Udalhitz Hitzarmena Lan Erreforma berrira egokitzeko prozesua; Kanpo Harremanetarako Legea; Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legea; gizarte-zerbitzuak; foru-arauen zenbait aldaketa (Arabako FOFFELen arauketa, esaterako); eta Eusko Jaurlaritzak agintaldi honetarako dituen legegintza-proiektuak. Euren guztien artean, ordea, udalontzat Euskadiko Udal Legea da lehentasunezkoa. Gure aukera handia da.

Hauek gure erronka eta desafio ugarietako batzuk baino ez dira.

(Indarguneak ditugu: aniztasuna, ugaritasuna eta erabaki-gaitasuna)

Aurrerantzean ere, EUDEL udalen “bozgorailua” izango da. Udalon adostasuna eta mobilizazioa suspertzeko lan egiten jarraituko dugu, aldarrikapen bateratuaren bitartez.

Euskadi herrialde txikia bezain anitza da, eta, beraz, adostasunak lortu behar dira. Arlo horretan, Euskadiko udalok esperientzia handia dugu, gure errealitateak oso desberdinak baitira.

Hori dela eta, aniztasuna, ugaritasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna dira EUDELen **hiru aktibo handiak**. Sarritan, gure lan-batzorde eta negoziaketa-mahaietan lortu dira babes zabaleko itunak. Arlo eta gai ugarian lortu dira akordioak, besteak beste, Ogasunean eta Finantzetan, Gizarte Gaietan, Enpleguan, Hezkuntzan, Hirigintzan eta Ingurumenean, Berdintasunean, eta abar. Guzti-guztiak lekuko ezin hobeak dira, EUDELen **hizkuntza berean, euskal udalgintzaren hizkuntzan, hitz egiten dugula** adierazteko orduan.

Euskadiko Udalen Elkarre gisa, **jauzi handia** egin behar dugu oraindik. EUDELen, beraz, jarraipena emango diogu orain arte udalen bozeramaile eta ordezkari moduan **instituzio gisa** egin dugun lanari. Tokiko gobernuen interesak defendatzea izango da aurrerantzean ere gure lehentasunezko xedea.

(Estrategia lineal bezain anitza)

Udalok geure instituzioen sendotasunean eta geure baliabideen kudeaketa eraginkor bezain egokian inbertitzen ari gara.

Helburu horretarako, **helburu ugariak dituen estrategia lineala** sustatzen dugu EUDELetik. Hona hemen hurrengo urteei begira EUDELeke bere “ibilbide-orrian” zehaztu dituen zenbait helburu:

- Politika instituzionalaren kalitatea **hobetzea**.
- Antolakuntzaren arloko **berrikuntzak egitea**.
- Pertsonetan **inbertitzea** eta erakundeetan beraietan talentua sustatzea.
- Gardentasunaren eta gobernu irekiaren aldeko **apustua egitea**.
- Bigarren zatian aurkeztuko dugun Jokabide Koderako ekimenean gauzatutako **lehentasun berri moduan**: udaletako jarduera politiko eta profesionalean balio publikoak eta etika **garatzea**.

Udal Legea

Betidanik, Udal Legea lehentasunezkoa izan da EUDELezentzat, eta, orain, “aukeraren” garaia iritsi da. Legeak, hain zuzen ere, behin betiko bultzada jaso du Eusko Legebiltzarrak apirilean hartutako erabakiaren ostean. Orain behar dugu, are gehiago, ziurgabetasun garai honetan.

Horrek gure udalen etengabeko aldarrikapenari emango dio erantzuna. EUDELeke 2010ean oinarriei buruz egindako agirian azaldu zuen aldarrikapen hori. Aldarrikapen hori Lege bat baino gehiago da; hogeita hamar urtean zehar gure herrialdeko instituzioen arkitektura eratzeko eta sendotzeko egindako lanaren une gorena da.

Urrats handi hori emateko, ezinbestekoa izango da inplikaturako eragile guztien borondatea eta adostasuna lortzea. Udal Legea **beharrizana** da, eta inplikaturako eragile guztiek herrialdearen beharrizana dela ulertu dezaten nahi dut.

Aldaketa ugariko garai asaldatu hauetan, inoiz baino premiazkoagoa da Udal Legea. Gure tokiko gobernuen eskumenak zein diren zehaztea oinarritzkoa da, bai eta udal-finantziarioa zehaztea ere.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea izan behar dugula eskatzen jarraitzen dugu.

Era berean, guretzat ezinbestekoa da **politika publikoak koordinatzeko** organoa sortzea; izan ere, organo horretan herrialdeko gobernu-maila guztiek parte hartu behar dute, eta lankidetzan nahiz laguntza mekanismoak sustatu behar ditu.

Euskadiko udalok herrialdearentzat garrantzitsuak diren ekintzen diseinuan eta jarraipenean parte hartu behar dugu. Tokiko ikuspegia beharrezkoa da, errealitate desberdinei erantzuteko eta politika orokorrak esparru zehatzen berezitasunetara egokitzeke.

EUROPA

Begirada irekita dugu. Hain zuzen ere, gure ingurua, Europa, aukera handia da Euskadiko udalentzat. EUROPAREN aldeko apustua dago EUEDEL-en jatorrian, eta sarean lan egiteko dugun estrategiari erantzuten dio.

Europarekin lotura izatean, Euskadiko udalen ekintzak eta jardura egokiak eman ditzakegu jakitera. Horri esker, Euskadiren interesen arabera politikak europarren zehaztapenean ere parte hartu dezakegu.

(BIGARREN ZATIA: JOKABIDE KODEAREN AURKEZPENA)

EUDEL Euskadiko tokiko boterearen ordezkaria da Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluan (CMRE) eta Europako Kontseiluko Eskualde eta Tokiko Botereen Kongresuan (CPLRE).

Hain zuzen ere, Europako Kontseiluko bi ordezkari gonbidatu nahi izan ditugu, gaur Iruña Okan egiten ari garen Batzar Nagusi honetan gurekin izan daitezen. Orain dela urtebete, gutxi gorabehera, EUDELen elkarteburu gisa egin beharreko agintaldiaren hasieran, Euskadiko alkateoi adierazi nizuen konpromisoa hartzen nuela Europa Euskadiko udaletara hurbiltzeko, bai eta Euskadiko udal txikietara ere.

Egia esan, Europa Euskadiko udalen alboan dago gaur egun. 2013ko Batzar honetan, EUDELen eta Euskadiko udaletan bertan sortutako ekimen bat aurkeztu nahi dizuegu, izan ere, ekimen horrek Europako Kontseiluko Eskualde eta Tokiko Botereen Kongresuaren babesa izango du. Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Politikaren Kalitate Instituzionalerako Konpromiso, Jokabide eta Gobernu Onerako Lehen Kodeaz ari naiz.

Batez ere, proiektuaren batzordean parte hartu duten alkateei eta Europako Kontseiluko **Manu Lezertua eta Alina Tatarenko** lagunei eman nahi dizkiet eskerrak, ekimen honetan inplikatzearagatik.

Ekimen hau zuon lanaren emaitza denez, aurkezpenean gure elkarteburuordea den Irungo alkatearekin batera hemen goian egotea nahi nuke.

Beraz, gurekin igotzeko eskatuko dizuet: **Manu, Alina eta honako udal hauetako alkateak: Santurtzi, Portugalete, Basauri, Iruña Oka, Guardia, Ermua, Elgoibar, Etxebarri, Arrigorriaga, Urnieta, Mungia eta Vitoria-Gasteiz.**

Etika eta Gobernu Egokiaren Kode hau ez da neurri erreaktiboa, ez da zauria estaltzeko “tiritita”. **Euskadiko udalok aldarriari erantzuna emateko hartu dugun konpromisoa da.**

Era berean, “unean uneko neurria” ere ez da, etika ez baita aldi baterako moda. Gure kodeak garapena eta jarraipena izan nahi ditu. Gure ustez, kalitate instituzionala hobetzeko prozesu etengabe eta iraunkorra da.

Orain, argi eta garbi ikusten ditugu krisiaren lau erpinak: krisi ekonomikoa, krisi soziala, politikaren krisia eta balioen krisia. Politikan eta komunikabideetan, “iritzi publikotik” “emozio publikora” igaro gara, eta, bertan, orain, garrantzitsuena ez da ideiei buruzko eztabaida, emozioen arauketa baizik. Hori arazoa izan daiteke. Gaur egun, gauza bera gertatzen da xede moduan barik politika bera herritarrentzako zerbitzu publikoaren bokazioa bideratzeko bitarteko moduan egiten dugunon irudiarekin.

EUDELetik, **errespetu handiagoa eta aintzatespen sozial handiagoa** eskatu nahi ditugu herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak ordezkatu, kudeatu eta zuzentzen dituzten guztientzat. Gaur egungo testuinguruan, gure profesionaltasuna, zehaztasuna eta zintzotasuna jarri dituzte kolokan, iraindu egiten gaituzte eta gure izen ona zikintzen dute desbideratutako jokabideak eta arauaren salbuespenak “leku komun” bihurtzen dituztenean... Hori dela eta, gaur egun inoiz baino gehiago balioetsi nahi dugu gure herrialdeko tokiko botere politikoa.

Demokrazia horretan bertan dago oinarrituta, eta tokiko politika ezin da krisitik aldentuta egon, izan ere, egoera horretatik irteteko aktiboa izan behar da.

Hori dela eta, Kode honek “jokabidea” du hizpide, izan ere, jokabidea bera egitateen eta ekintzen bidez erakusten da. Kodea Euskadiko alkate eta zinegotzi guztien lotura bateratua izan dadin nahi dugu, gure kode etikoa eta “kode genetikoa”, Euskadiko tokiko hautetsi guztien DNA, alegia.

Horren bitartez, euskal gizarteari ahal dugun onena eskaintzeko egindako ahalegin eta sakrifizioaren adibidea eman nahi dugu, eta herritarrentzako zerbitzurako hartu dugun konpromisoa indartu nahi dugu. Elkarrekin lan egin nahi dugu geure udalak eta biztanleak garatzeko eta hobetzeko prozesuan.

EUDELe adostasunaren garrantzia sinesten du. Izan ere, pentsamoldea aldatu beharra dago, herritarrek politikaren inguruan eta, batez ere, tokiko esparruan zeukaten sinesmena berreskuratzeko.

Aukera aparta da guretzat, eta bat dator Euskadiko udalek honako arlo hauetan egindako apustu irmoarekin: partaidetza eta gardentasuna; herritarrek gobernu on eta jokabide etikoaren inguruan egindako eskaria; eta krisia nahiz langabezia nagusi diren une latzetan hain beharrezkoa den kohesio soziala.

Kode hau gauzak egiteko modu berri baten hedapenerako bultzadarik onena da. Krisialdian, ez du balio elkarren aurkako politikak. Izan ere, ezeren gainetik, zinegotziak eta alkateak gara, zerbitzu publikorako bokazioa nahiz erantzukizuna daukagu.

Kode hau Euskadiko udalen eta tokiko politikaren **konpromisoa** da:

- Kalitate demokratikoarekin eta funtzionaltasun instituzionalarekin.
- Gardentasunarekin eta Gobernu Onarekin.

Konpromiso honen bidez, gure herritarrengana hurbildu nahi dugu, gehien behar gaituztenean.

Halaxe egin dugu orain arte, baina hobeto egin nahi dugu. Gure elkarteburuordea den Irungo alkate José Antonio Santano jaunak azalduko dizue nola. Beraz, hitza emango diot orain.

Eskerrik asko zuon arretagatik.